

Íkasleen txokoa

Inmaculada ikastetxea



Gerra Zibila Hernanin / III

Tatnai Grajeras eta David Da Silva



Ainere Tolosa Arregi antzezlea / II

Enara Pacheco, Esti Arregi
eta Sara Adamut



Lanbide Heziketa, lanean azkar hasteko aukera bat / IV

Ainhoa Aranburu, Maria Alonso
eta Mainer Toledo




Snowboard-a/ III

Josu Sarasola

“Deabrua Pradaz janzten da” Cruella de Vil modan aditua/ IV

Sara Adamut, Esti Arregi
eta Enara Pacheco



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMACULADA IKASTETXEA

AINERE TOLOSA ARREGI

Antzezlea:

"Nik uste dut Ixabelekin gauza batzuetan antza eduki dezakedala"

Ainere Tolosa zizurkildar gaztea "Kutsidazu bidea, Ixabel"eko protagonista dugu bai antzerkian eta bai pelikulan. Orain "Wazemank" saio ospetsuan aritzen da larunbat gauetan ETBn. Tartetxo txiki bat eskaini digu ondorengo elkarrizketa hau egiteko.

Zein izan zen zure lehenengo kontakua ikuskizunaren munduan?

Zazpi edo zortzi urte nituela neska talde bat elkartzen ginen edozein arrazoirekin antzerkia egin ahal izateko, eta gero txokoren bat aurkitzen genuen antzerkia aurkezteko. Hamaika edo hamabi urterekin sartu ginen Zizurkilgo antzerki talde batean. Horrelaxe gaur arte.

Zein izan zen zure lehenengo lana antzerkian?

Lehenengo antzerki lan profesionala "Kutxidazu bidea, Ixabel" izan zen; amateur mailan "Nork bota du misila", hamar hamaika urterekin egin nuena.

Zer sentitu zenuen pelikulako protagonista izango zinela jakin zenuenean?

Alde batetik izugarrizko poza eta beste alde batetik erantzunkizun handia. Bi ginen protagonista, Mikel Losada eta ni. Emaitzak berehala ikusten ohituta nengoen, antzerki mundutik nentorrelako, baina pelikularenak ikusteko pixka bat itxaron behar izan dut. Azkenean emaitzekin gustora gelditu naiz lehen pelikula izateko.

Aktore guztiakin gustora egon al zinen?

Bai, bai, ordu asko pasa genuen elkarrekin eta talde polita eta majoa osatu genuen. Alde horretatik pribilegio haundia eduki dugu.

Zein antzezlerekin eduki zenuen lotura gehiena?

Pelikulan gehiena Mikel Losadarekin egoten nintzen, nolabait, harreman gehiena berarekin izan dut, baina tartetxoak ateratzen genituen denok elkarrekin egoteko eta elkar ezagutzeko, eta oraindik elkar ikusten dugu eta gelditzen gara antzerkiak ikusteko.

Kontatu zure lanean gertatu zaizun anekdotaren bat

Kamara batek animaliei fobia zien, batez ere oiloi, eta nahiko gaizki pasa zuen, oiloak beti sukaldetan ibiltzen baitziren.

Nahiko anekdotikoa da halere, ni zizurkildarra izanik, nire lehen pelikula Zizurkilen egitea. Pribilegio handia izan da niretzat.

Proposatuko balizute, beste pelikula bat egingo al zenuke?

Bai, nik uste dut animatuko nintzatekeela. Hasieran gogorra bada ere, ez dakizulako zer egiten ari zaren eta emaitzak oraindik ikusi gabe dituzulako. Urtebete eta gero emaitzak ikusita merezi izan duela ikusten duzu.

Zer gustatu zitzaizun gehiago, pelikula bateko aktore izatea edo antzerki bateko antzezle izatea?

Ez dakit, desberdinak dira. Ni orain arte antzerkian ibili naiz. Eszenatoki batera igotzean eta istorioa kontatzen hasten zarenean, zerbait zentzuduna egiten ari zarela konturatzen zara. Pelikulan desberdina da, sketx bat gaizki egiten baduzu errepika dezakezulako, eta lanaren emaitza urtebete beranduago ikusten duzu. Emozio aldetik antzerkia nahiago dut, baina "Wazemank" erdikoa da eta horrekin geratuko nintzateke.

Pelikulako zein zati gustatu zitzaizun gehien?

Ba, igual familia giroko sketx bat, zeren azken finean hainbeste ordu sartzen ditugunez, agian gehiago egoten zara haiekin zure familiarrekin baino. Eta polita da hori pantaila aurrean ikustea, baserri giroko familia bat.

Antzezle lanean segitzeko prest? Bai, noski.

Eskerrik asko guri solasaldi atsegin hau eskaintzeagatik.



Ainere Tolosa Arregi

Antzerkian: «istorioa kontatzen hasi eta zerbait zentzuduna egiten ari zarela konturatzen zara».

Pelikulan: «ezberdina da, sketx bat gaizki egin eta errepika dezakezulako; lanaren emaitza urtebete beranduago ikusten duzu».

«Emozio aldetik antzerkia nahiago dut, baina 'Wazemank' da erdi bidea eta horrekin geratuko nintzateke»

21

zenbakia

Gerra zibila, Hernanin

Gerra zibila 1936ko uztailaren 17an hasten da Melillako altxamenduan eta 18tik aurrera Espainara hedatzen da. Gipuzkoan, errepublikarrek matxinada menderatu zuten baina eskuindarrek irailean Irun hartu ondoren, berehala Gipuzkoa osora iritsi ziren.

Matxinatuek bi maniobra planteatu zituzten Gipuzkoa, eta gero Bizkaia, kontrolatzeko:

1. Irunera jo muga kontrolatzeko; behin muga kontrolpean izanik Donostia eskuratu.

2. Oria ibaiaren bailaratik aurreratu Tolosarantz eta Gipuzkoako bide-lotunerik garrantzitsuenetariko bat menpean hartu.

Uztailaren 27tik abuztuaren bukaerara Beasain, Tolosa, Andoain eta Buruntza mendia hartzen dituzte matxinatuek eta frontea Bidasoa aldera desplazatzen da.

Bitartean Hernani eta inguruko boluntarioz osatutako taldeak, mikeleteekin batera, defentsa antolatu eta ehiza eskopetekin mendi aldera jo zuten. Sozialistak, komunistak, errepublikarrak eta abertzaleak elkarrekin aritu ziren. Buruzagi jeltzaleek mobilizazioarako deialdia abuztu erdialdean egin bazuten ere, EAJko hainbat militanteek bat egin



Inmaculada ikastetxeko gazteak, 36ko gerran fusilatu zituztenen omenez jarri duten eskulturaren ondoan.

zuen defentsa lan horrekin. Irailaren hasieran, frontea berriro Hernani aldera hurbiltzen da. Hainbat egunarik Hernaniko gudarien aipamena egiten dute. Adibidez Frente popularrak hauxe dio: "los bravos milicianos de Hernani ayer, desde primera hora de la mañana, se entregaron a actividades ofensivas. En Hernani hay sangre caliente y temperamento de lucha, nadie quiere aguardar a la defensiva".

Matxinatuek Hernani bonbardeatu, hiru pertsona hil eta hamaika zauritu zituzten. Santa Barbara eta Hernani 1936ko irailaren 12-13an matxinatuen

eskuetan erori ziren.

Matxinatuen sarraskia Euskal Herrian

Hildakoak: 6.500
Desagertuak/Fusilatuak: 5.000
Espetxeratuak EHan: 18.000
Exiliatuak: 150.000

Biztanleria zibilak bereizketarik gabeko bonbardeaketak jasane behar izan zituen. Bortxaketak eta umilazioak, giza eskubideen urraketa, lan bortxatuak, herbesteak... Hernanin gutxi-gorabehera 22 ume ebaquatu zituzten, Frantziara, Belgikara edota Errusiara bidal-

tzen zituztelarik. Arazketak eta konfiskazioak izan ziren Hernanin ere, garbiketa kulturala, euskeraren aurkako jazarpenak, garbiketa ideologikoa... Baina hori guztia ahaztuta geneukan.

Hernaniko fusilatuak

1936ko udazkenean Hernaniko hilerrian 200 pertsona fusilatu zituzten: hernaniar, gipuzkoar eta Ondarretako kartzelatik ekarritakoak.

Oroimena

Erregimen berriaren, garailearen, ezaugarri nagusia izpiritu nazionalaren haundiespena

izan zen. Eta "erorien" oroimena. Edo beraien zendutakoei oroigarri erraldoiak eraikitzea. Baina... eta "galtzaileak"? Gezur itzela eraiki zuten: ez zela errepublikar biktimarik izan, biktimei izena ukatu eta beraien familiei hauen hutsuneaz negar egitea ere debekatu zitzairen. Galtzaileak herrietan, atzerrian eta, ahaztuta egon dira; 70 urte beranduago behingoz oroimena berreskuratzen hasi gara. BAZEN GARAIA!!!

TATNAI GRAJERAS,
DAVID DA SILVA
Inmaculada ikastetxea

Snowboarda

SNOWBOARD-a elurretatik jaisteko snowboard tabla erabiltzeari deritzo. Snowboarda neguko kirolen alternatiba bezala sortu zen Amerikan 70eko hamarkadan. Kirol honetan hasi ziren lehenengoak Amerikar surferrak eta skateboarden praktikatzaileak izan ziren. Laster sortu ziren munduko txapelketa eta beste lehiaketa batzuk eta 1990ean kirol olinpikotzat hartu zuten Naganoko neguko joko olinpikoetan, hain zuzen ere. 90garren urtetik aurrera asko hedatzen hasi zen kirol honen ospea beste neguko kirolen artean, besteak beste, zailtasun gehiago daukalako, ez baitago ohiko posizio bat, eskian bezala.

Hiru modalitate, freestyle, freeride eta boardcross

Snowboardak hiru modalitate nagusi ditu:

-Freestyle: modalitate honen helburua ez da azkar jaistea, akrobaziak egitea baizik. Tablak txikiagoak, arinagoak eta malguagoak dira.

-Freeride: modalitate honen helburua pistaz kanpoko jaitsiera estremoia da. Jaitsiera hau harkaitzetatik egiten denean Backcountry izenez ezagutzen da.

-Karrera edo Boardercross: modalitate honen helburua azkarren jaistea da. Pista ez da laua, zuloz josita dago, jaitsiera zailagoa izan dadin. Modalitate olinpikoa da.

Euskal Herrian kirolari ospetsuenetarikoa Iker Fernandez dugu. II

JOSU SARASOLA
Inmaculada ikastetxea



21

zenbakia

ikasleen txokoa

Lanbide heziketa, lanean azkar hasteko aukera bat

Bilbon, Lanbide Heziketari buruzko erakusketa egin zen.

Lanbide Heziketa lanean azkar hasteko aukera bat da eta horri esker ez dago bost urte edo gehiago unibertsitate batean ikasten egon beharrik. Lanbide Heziketak Batxilergoa egiteko aukera ematen du eta baita ere unibertsitatera joatekoa.

Gaur egun, gero eta emakume gehiagok Lanbide Heziketa aukeratzen du.

Bilbon, BECen, azaroaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak antolaturik gai honi buruzko erakusketa bat egin zen. Bi urtez behin egiten da, eta DBH eta Batxilergoko ikasleei zuzendua dago. Erakusketa honen helburua jendea orientatzeaz gain, zein lanbide mota dagoen erakustea da. Guk ezagutzen ditugun lanbideez gain, ezagutzen ez ditugunak ere bazeuden: osasuna, kimika, arte grafikoak...

Gaur egun, 138 titulu eskaintzen ditu Lanbide Heziketak, eta titulu bakoitza lan-jarduera zehatz bati dagokio:

-Erdi mailako Heziketa-Zikloen bidez, espezialitateko teknikari titulua lortzen da.

-Goi mailako Heziketa-Zikloen bidez, goi teknikari titulua eskuratzen da.

Erakusketan zeuden arloak stand-etan zeuden banatuak, arlo bakoitzean lanbide desberdinak zeudelarik. Adibidez, administrazioan: administrazio eta finantzak, administrazio kudeaketa eta



Elektronikako postuak arrakasta handia izan zuen

idazkaritza. Osasunean: farmazia, dietetika, hortz protesiak, erradioterapia... eta horrela elkarren segidan, arlo guztietan.

Stand bakoitzean arlo horretan espezializatuek azalpenak ematen zizkioten jendeari han zeuden tresnak baliatuz. Azalpen teorikoez gain azalpen praktikoa ere ematen zituzten, adibidez: kimika eta elektronikan.

Arrakasta gehien izan zuen stand irudi pertsonalarena izan zen: masajeak eman, manikura egin, makilatu eta ilea ere apaintzen zutelako. Mutilen artean ere arrakasta izan zuen karakterizazioak

egiten zituztelako.

Elektronika eta irudi pertsonaleko postuak elkarren artean lehiatu ziren ea zein zen erakargarriena.

Bukaeran, ikasleoi banatu zizkiguten inkestak bete genituen.

Benetan oso gustora ibili ginen eta zeuek ere joatera animatzen zaituztegu. ||

AINHOA ARANBURU, MARIA ALONSO
ETA MAIDER TOLEDO
Inmaculada ikastetxea

EGILEAK:



Maria Alonso, Maider Toledo, Ainhoa Aranburu, Josu Sarasola, Esti Arregi, Tatnai Grajeras, David Da Silva, Enara Pacheco eta Sara Adamut.

ZINE KRITIKA



“Deabrua Pradaz janzten da” Cruella de Vil modan aditua

Zuzendaria: David Frankel

Genero mota: Komedia

Antzezleak: Meryl Streep, Anne Hathaway, Stanley Tucci, Emily Blunt

Iraupena: 109 minutu

Lauren Weisbergerren liburuan oinarrituta dago. Estatu Batuetan ekainaren 20an estreinatu zutenetik, filmak arrakasta handia izan du.

David Frankelen helburua komedia dibertigarria egitea da, eta modaren munduan dagoen sarkasmoa adieraztea.

Filmak Andrea Sachs gaztearen gorabeherak kontatzen dizkigu, Mirandaren moda aldizkariko argitaratzailearen laguntzaile pertsonal bezala.

Andrea, bere ametsa lortzearen, Miranda ospetsu, guztiz boteretsu eta despotaren enpresan sartuko da.

Neska azkarra izanda ere bere bizitza guztia aldatu beharko du eta ez da bere onerako izango, mutil-laguna eta lagunak galtzeko arriskuan egongo baita.

Une atseginak eta modaren munduko azpijokoak gustatzen zaizkienei gomendatzen diegu pelikula hau.

SARA ADAMUT,
ENARA PACHECO ETA ESTI ARREGI
Inmaculada ikastetxea